



UPV/EHUko IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO-DEIALDIA (2025) I. ETA II. MODALITATEAK

Onartutako eta baztertutako eskabideen behin-behineko zerrenda

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen oniritzia eta Gobernu Kontseiluaren onespena jaso ondoren, Ikerketa Errektoreordetzak (aurrerantzean IE) honako hau argitaratu zuen:

UPV/EHUko IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO-DEIALDIA 2025

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, Ikerketen Errektoreordetzako Ikerketa Kudeatzeko Zuzendaritzak aztertu egin ditu aurkeztutako eskabideak, honako puntu hauek azpimarratuz:

- a) Eskatzaileek 3. oinarrian jasotako baldintzak betetzea.
- b) Tesi-zuzendari gisa proposaturiko pertsonen 4. oinarrian jasotako baldintzak betetzea.
- c) Aurkeztu beharreko agiriak, 6. oinarrian jasoak.

ERANSKInean onartua baldintzapean agertzen diren eta zuzendu beharreko dokumentaziorik ez duten hautagaiek ez dute bestelako izapiderik egin beharko. Baldintzapean hori eskatzaileak beren doktorego-programetan behin betiko onartzeari lotuta dago. Izapide hori Doktorego Eskolan ebatzi ondoren, Ikerketa Errektoreordetzak egoera ofizioz eguneratuko du, onartutako eta baztertutako eskaeren behin betiko zerrenda argitaratzearekin batera.

ERANSKInean Onartua baldintzapean jotzen diren baina zuzentzeko dokumentazioa duten eskaeren hautagaiek eta baztertuak izan diren eskabideen hautagaiek, 10 egun balioduneko epea izango dute, **2025eko irailaren 22tik urriaren 6ra, biak barne**, adierazitako akatsak zuzentzeko edo nahi dituzten alegazioak aurkezteko. Epe hori igaro ondoren, zuzendu ez diren eskabideak atzera egindakotzat joko dira edo, merezimenduak badira, ez dira baloratuko.

Argitaratutako zerrendak I. eta II. modalitateetan onartutako **merezimenduen behin-behineko zerrenda** eta **puntuazioak** jasotzen ditu (modalitateka bereizita), 7.1 oinarrian aurkeztutako taularen 1,2,3, 5 eta 6 irizpideen arabera, guztira 65 punturekin.

Merezimenduei dagokienez, alderdi hauek berrikusi dira:

1. **Graduko espedientearen edo baliokidearen batez besteko nota** (I. eta II. modalitateetarako baliozko eskakizun/meritua)
2. **Hizkuntza ez-ofizialak jakitea, B2, C1 eta C2 ziurtagirien bidez egiaztatuta, Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuaren mailen arabera** (I. eta II. modalitateetarako baliozko meritua)
3. **Euskara jakitea egiaztatzen duen ziurtagiria** (I. modalitaterako baliozko meritua: B2, C1 edo C2/C1 baldintza II modalitaterako)
5. **Euskarari egindako ekarpenen balorazioa. Euskara Batzordeak ebaluatu du irizpide hori** (II. Modalitaterako baliozko meritua).
6. **Zuzendari gaztea:** Gutxienez tesi-zuzendari bat egotea, UPV/EHUn lanaldi osoko kontratua izanik eta UPV/EHUko Doktoretza-programan parte hartzeko baldintza



betez (4.2.a.ii oinarria), dagoeneko defendatu den doktore-tesi bat baino gehiago zuzendu ez duena.

Sinadura elektronikoak, ziurtagiri aitortu batek babestuta, kontratua sinatu aurretik baliozkotuko dira esleipendunekin, hala eskatzen duten dokumentuetan.

Eskatzaileek IEk onartutako eta baloratutako merezimenduak egiaztatu ahal izango dituzte, eta, okerrak direla uste badute, adierazitako akatsak zuzendu edo nahi dituzten alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte 10 egun balioduneko epean, hau da, **2025eko irailaren 22tik urriaren 6ra, biak barne.**

Deialdiaren oinarriekin bat, **ez da inolaz ere onartuko eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren lortutako merezimendurik, ez eta eskabideak aurkezteko epearen barrenean alegatu ez direnik ere.**

Alegaziorik aurkezten ez bada, ulertuko da hautagaiak onartzen dituela meritua, eta ez da beharrezkoa izango izapide gehigarriarik egitea.

Zuzenketak eta alegazioak deialdiaren 6. oinarrian adierazitako bide berberen bidez aurkeztu beharko dira:

UPV/EHUren egoitza elektronikoaren bidez egindako inskripzioen kasuan (<https://egoitza.ehu.eus>), bai zuzenketa-eskaerak bai alegazioak aurkezteko, egoitza horretan aldez aurretik sortutako espedientearen barruan kudeatu beharko dira. Izapide hori errazteko, "ERANSKINA I. ETA II. MODALITATEAK" dokumentuan eskabide bakoitzari dagokion zenbakia adierazten da.

Eskabide kopurua dela-eta, **kontsultak ebazteko lehenetasunezko komunikazio bidea** honakoa izango da: solicitudes-pif.dgi@ehu.eus

Adeitasunez,

Leioa, 2025eko irailaren 19an.

**IKERTZAILEEN KONTRATAZIO ETA PRESTAKUNTZARAKO
BALIABIDEEN GESTIOAREN ATALA**
Ikerketako Errektoreordetza